

PROIEKTUAREN DESKRIPENA

Gure enpresak Born to Style izeneko produktu berritzaile bat garatu du, zeinek arropa automatikoki hautatzen duen pantaila intelektual bat eskaintzen duen. Teknologia aurreratua duen gailu honek, erabiltzailearen estiloa eta lehentasunak kontuan hartuta, eguneroko janzkera aukeratzen du, denbora aurrezteko aukera emanez eta goizeko momentu azkarrak egiteko erabakiak errazteko helburuarekin.

Born to Style pantailak, eguneroko bizitzan funtzionalitate praktikoa eta modaren munduko azken joerak uztartzen ditu. Produktu hau 400 euro inguruko prezioa du, eta horregatik gehien bat erdi-maila altuko familiak edo modarekiko interesa duten pertsonak izan daitezke helburu bezeroak.

Gainera, Born to Style pantailak Inditexekin eta Pantallas LEDekin izandako harreman estrategikoen bidez, Espainian eta mundu osoan banatuko dira, MediaMarkt, Leroy Merlin eta beste dendatan, baita online plataformetan ere. Espainian, produktuaren banaketa furgoneta flota erabiliz egingo da, zuzenean fabrikatik esportatuz.

Horrez gain, produktuaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea dugu helburu, eta hori lortzeko, psikologo sozial baten laguntza izango dugu, estiloaren eta funtzionaltasunaren arteko oreka eskaintzen duten aukerak aztertuz. Horrela, erabiltzaileak bere estilo pertsonala eta funtzionalitatea elkartzen dituzten aukera optimoak izango ditu. Gure helburua ez da soilik moda eskaintzea, baizik eta bezeroen bizitza errazteko eta beraien eguneroko erronkei aurre egiteko laguntzea.